

# DROGETEN

LIJURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria, 264. zenbakia. 2018ko otsaila

Edorta Unamuno,  
txorien paradisu







**IRAZABAL**  
clínica dental

**Familiaren Osasuna**  
**Zure familiaren ahoaren osasunaz**  
**arduratzen garelako**  
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal    Eta twitteren: @Clinicairazabal



**FINANTZIAZIO BEREZIA.** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**Ainhoa Zulueta**  
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, implantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturia.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturia.  
**Autran Institutoa. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00**etatik **22:00**etara  
**Zapatuetan:**  
**10:00**etatik **14:00**etara

**Ugaro**  
asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA  
tel. 943 17 43 44 • [ugaro@ugaro.com](mailto:ugaro@ugaro.com)

Agente eksklusibook:



**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Alazne Aiestaran,  
Amaia Arginzoniz,  
Dorleta Vidal,  
Estibalitz González  
eta Ekhi Velar.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Edorta Unamuno.

**LAGUNTZAILEAK:**

Antonio Hernández 'Cuco',  
Patxi López,  
Valentin Mugarza,  
eta Gaizka Areitioaurtena.

**ARGAZKIAK:**

Olatz Santos,  
Ongarai eskola,  
Edorta Unamuno,  
Timotea Garitagoitia,  
Euskaltzaleen Topagunea,  
Izaro Andres,

Omniscon,  
Ermuko Udala,  
Estibalitz González,  
Euskadi-Murias,

Peio Goikoetxea,  
Valentin Mugarza,  
Ermukoa Emakumeen  
Asanblada  
eta Ekhi Velar.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Ainitze Antxia, Piedi  
Eizagirre eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarron ahotik*

## Santa Martiri maitia (Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Santa Martiri maitia,  
nago errukiz betia  
Martirixa martirixuekin  
igaro eban fedia.  
Emon bihar bozu emoizu  
bestelan ezetz esaizu,  
zuk emondako limosniakin  
jan da eran egingou!

Santa Ageda Ageda  
bixar da Santa Ageda,  
bixar Santa Ageda da baiña  
gaur haren bezpera gaba.  
Emon bihar bozu emoizu  
bestelan ezetz esaizu,  
zure diruarekin  
ondo ibiliko gera gu!



## Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA .....4

Olatz Santos (Irlanda)

ELKARRIZKETA .....5-7

Edorta Unamuno, biologoa

MALLABIAN ZER? .....8-9

Andrak trature

ERREPORTAJEA .....10-11

Agurtzane Delgado eta Ainhoa  
Mujikari babesa

MOTZEAN.....12-14

Laburbira martxoaren 1ean

ERMUAN ZER? .....15

Euskaraldia prestatzen

KIROLZALE .....16-17

Aitor González eta Peio Goikoetxea

ESKOLEN TXOKOA .....18

Ongarai eskolako albistek

IRITZIA .....19

Kartzelan izan naiz

ANTZINAKOAK.....20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

ZORION-AGURRAK.....21

Saldu, erosi edo agurtu

MARTXOKO AGENDA .22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



foru aldundia  
diputación foral



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística



## Olatz Santos

Beste herrialde batean bizitzeko gogoia izan du beti Olatzek eta unibertsitateko gradua amaituta, Irlandara joateko erabakia hartu zuen. Au pair bezala dago han eta, ingelera ikasteaz gain, herrialdea ezagutu, lagunak egin eta gozatzeko aukera dauka ermuarrak. Maiatzean etxera bueltatzeko asmoa dauka, baina, orduan batek daki.

### - Non bizi zara Irlandan?

Clane (Irlanderaz Claonadh) izeneko herri txiki batean bizi naiz, Dublinetik gertu.

### - Noiz joan zinen? Zer dela-eta?

Iraila hasieran etorri nintzen. Unibertsitateko gradua amaitu berritan zalantza asko nituen etorkizunari buruz, ez nekien nondik jo eta lasaitasunez erabakitzeko tarte bat hartzea erabaki nuen.

### - Erabaki erraza izan zen?

Egia esanda ez nuen asko pentsatu, lagun batekin hizketan ari nintzela erabaki nuen. Beti erakarri nau beste herrialde batean bizitzeko ideiak eta saiatzeko unea zela sentitu nuen.



### - Nola imajinatzen zenuen leku hura? Aurreiritzirik zenuen? Bete dira aurreiritzi horiek?

Lekuak baino familiarekiko harremanak kezkatzen ninduen. Au pair bezala ari naiz lanean eta askotan entzun ditut lan honekin lotutako istorio gogor eta ezatseginak. Batzuetan zaila da lan egiten duzun leku berean bizitzea, baina, zorte handia izan dudala uste dut, oso pozik nago.

### - Nola moldatzen zara hizkuntzarekin han?

Ondo. Hemen egin ditudan lagun gehienak beste herrialde batzuetako au pair-ak dira eta ondorioz, denbora librean ere ingelesez hitz egiteko ahalegina egiten dut. Hizkuntza bat ikasteko erarik onena horren beharra sentitzea dela uste dut.

### - Eta eguraldiarekin?

Alde horretatik etxean egongo banintz bezala sentitzen naiz.

### - Zer da gehien gustatu zaizuna?

Jendea. Pertsona eskuzabal eta oso atseginak direla uste dut, beti laguntzeko prest. Bestalde, taberna gehienek zuzeneko musikaren alde egiten duten apustua gustura inportatuko nuke gurera.

### - Eta gutxien?

Egunak oso laburrak direla azarora eta urtarrila bitartean.

### - Zerbait botatzen duzu faltan?

Maite ditudan pertsonak eta txakurra.

### - Nolako da zure egun arrunt bat?

Bi, hiru eta sei urteko hiru ume zaintzen ditut asteartetik ostiralera bitartean, ondorioz, erizaina, irakaslea, ipuin kontalaria, antzezlea... naiz egunaren arbera. Lanean ez nagoenean Irlandako beste leku batzuk ezagutzen saiatzen naiz bertako lagunekin.

### - Noiz bueltatuko zara?

Maiatzean bueltatzeko asmoa daukat ikasten jarraitu nahi dudalako, baina, ez dut Irlandara berriro etortzeko aukera bazterten.

Ekhi Velar



**SAN ANTONIO**

OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

**AIZ**

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**AMAIA HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua euskalduntzen



Edorta Unamuno, biologoa:

**“Natur mundua eta gizakia uztartzen diren tokia da Urdaibai”**

Jose Mari Unamunorekin Urdaibai Bird Centerra martxan jartzeko asmoa erakutsi zuenean zoratuta zegoen galdetu zioten Edorta Unamunori. Arteagako fabrika zahar bat hartu eta txorien behaketan erreferentziatzko tokia sortu dute bertan. Hainbat proiektu garatzen dituzte Urdaibain, “mila saltsatan gaude”, eta gustura, pasioarekin eskaintzen diote bere jarduna txoriei Unamunotarrek. Abizen bera bai, baina ez dira familiakoak. Ermuarrak, Edortak, bere esperientziaren berri eman digu, eta Euskadi Gazteko ‘Faktoria’ saioan entzun dezakegu ostiral goizetan. Bere paradisuari esku zabalik hartuko gaituela zin egin du.

**- Nondik abiatu zen Urdaibai Bird Centerra (UBC) sortzeko ideia?**

Nire ama Arteagakoa da eta nik biologia ikasi nuen, baina hasieran ez nintzen ibili txoriekin zerikusirik zeukan ezertan. Karrera egin eta gero zoologian sartu nintzen, baina barraskiloen kontuetan sartu nintzen. Amaren baserria Urdaibain dago eta txikitatik ibili izan naiz padura alboan. Gure jolaslekua izan da. Hortik abiatuta, Jose Marirekin egin nuen topo 2000 urtearen inguruan. Kasualitatez Unamuno da bera ere, baina ez gara familiakoak. Txoriei eraztunak jartzen zebilen eta bere jarduna ikustera gonbidatu ninduen. Berarekin joan eta engantxatu egin nintzen.

**- Zergatik engantxatu zinen, bada?**

Txorizalea nintzen, baina eraztunketarekin txoriak harrapatzen dituzu jarraipena egiteko eta normalean ikusten ez dituzun txoriak harrapatzen dituzu. Leiho handi bat zabaldu zitzaidan parez-pare eta au-

ker handiak ikusi nituen. Jose Marik hainbat proiektu martxan jartzeko asmoa zeukan eta horiek garatzeko toki baten bila zebilen. Arteagan fabrika bat zegoen, herriko bakarra, eta antxoan kontserbarako erabiltzen zen. Utzita zegoen eta egun batean berri batekin etorri zitzaidan Jose Mari. "Edorta, zorakeria bat egin dut nire anaiarekin. Pisu bat saldu dugu eta fabrika erosi dugu". Nire orduko lana ahazteko esan zidan, handik gutxira bertan lanean hasteko. "Ba aurrera!", esan nion.

**- Zein egoeratan zegoen fabrika hura?**

Demaseko pabilioia zen, erraldoia, eta lagata zegoen. Eusko Jaurlaritzan eta Bizkaiko Foru Aldundian proiektuak aurkezten hasi ginen diru-laguntzak jasotzeko. Gustatu zitzairen eta, ondorioz, poliki-poliki dena martxan jartzen hasi ginen.

**- Zein urtetan izan zen hori?**

2012an. Hamar urtetan zehar bakoitzak bere lana eduki zuen eta txoriena za-

## “Urdaibaira hurbiltzen zenak ez zekien nora jo txoriak ikusteko”

letasuna izan zen. 2009an txorien gaia serio hartu behar genuela ikusi eta aurrera egin genuen.

**- Zaila izan zen aurretik zenuen lana uztea?**

Oso lan polita neukan, eta, oraindik ere, bertara joaten jarraitzen dut. Baserri-eskola batean nenbilen, Lurraskan, baina UBC gure umea zen eta utzi egin behar izan nuen.

**- Zentroa sortu aurretik, bazegoen txorienzako babesik Urdaibain?**

Urdaibain beti egon dira txoriak, baina ez da gestio-rik egin eta ez da erakusteko modurik egon. Urdaibaira hurbiltzen zenak ez zekien nora jo txoriak ikusteko. Administrazioak Urdabairi garrantzia handia ematen zion, baina ez zegoen ezer prestatuta txoriak ikusteko. Fabrikako proiektuaz gain hezegune

batzuk berreskuratu genituen fabrikaren parean, eta urtebete pasatuta 20 espezie inguru ikustetik 200 espezie inguru ikustera pasaginen. 40 txori-mota ezberdin ikus daitezke bertan egunero. Migrazioetan toki hau erabiltzen duten txoriak egon daitezke, negua bertan pasatzen dutenak ere... Guretzat paradisu da eta txorientzat ere.

**- Nolako eskaintza dauka UBC-k?**

Hiru lerro jarraitzen ditugu. Batetik, ikerketa dago. Txorien eta euren migrazioen inguruan ibiltzen gara, eta eraztunketa estazioak daukagu txoriak markatzeko. Urtean 5.000 txori inguru markatzen ditugu eta arrano arrantzalearekin eta beste hainbat espezierekin ere berreskurapen eta ikerketa proiektuak martxan ditugu. Bigarrenik, hemen



HARATEGIA - URDAITEGIA  
**MIGUEL**  
 2012ko BILBOKO  
 TXORIZO TXAPELKETAN  
 BIZKAIKO  
 TXAPELDUNAK  
 PROIEKTU 3-945170563  
 ERMUA

**ZERMIK**  
 SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA  
 DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS  
 ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)  
 Usatxe plaza 6-8, behea  
 Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
 Telf: 943 23 10 12





hartzen ditugun datuak artikulu zientifikoetan erabiltzeaz gain, oinezkoei modu errazean erakustea da gure beste helburuetako bat. Dibulgazio tokia da UBC eta bisita ugari jasotzen ditugu. Eta azkenik, turismoaren lerroa dago. Europa eta Iparraldetik jende asko etortzen da, baina Euskal Herritik eta Espainiatik etortzen da jendea gehienbat. 2017an 37.105 bisita jaso genituen. Neguan lasaiago gabilta, baina udaberri eta udan 100-150 pertsona etortzen dira egunero.

- **Nolako txoriak aurkitu ditzakegu bertan?**

Zentzu horretan gozamina da UBC. Egunetik egunera txori ezberdinak aurkitu ditzakegu. Izan ere, migrazio puntu beroan dago Urdaibai. Hegaztiak, normalean, iparraldean habiak egiten dituzte udaberriaren edo udaren bueltan, eta udazkenean migrazioa egiten dute. Batzuk Afrikara doaz negua pasatzera eta oso iparraldean daudenak hona etortzen dira. Sasoiaren arabera, zerbait ezberdina ikusiko dugu eta beti dago zerbait. Orain momentuan sasoi berezia da, iparraldetik etorritakoak hemen daudelako eta Afrikan daudenak etortzen hasi

## “40 txori-mota ezberdin ikusi daitezke Urdaibain egunero”

direlako. Ahate-txistulariak, buztangorriak, zezen-txoriak... ikusi ditzakegu orain. Normalean zaila da zezen-txoriak ikustea, baina gure behatokitik erraza da sasoi honetan eta txori hori ikustera etortzen da jendea apropos. Altxor batzuk dauzkagu hemen eta jendea horiek ikustera etortzen da.

- **Zezen-txoriaz gain, zeintzuk dira UBC-ko altxorrak? Zer du UBC-k antzeko beste tokiek ez dutena?**

Urdaibai baserriz inguratuta egon da eta baserritarrek euren zereginetarako erabili izan dituzte lurak. Itsasoari irabazitako lurak dira, baina orain dela 50 urte inguru baserriak uzten hasi ziren eta lur horiek ez ziren behar. Hala ere, aberastasuna mantendu egin da eta faunarentzat egokiak diren guneak daude. Gainera, paisaia zoragarria da. Natur mundua eta gizakia uztartzen diren tokia da Urdaibai. Turismo eta aisialdirako oso garrantzitsua da.

- **Eta zaindu beharrekoa?**

Noski, horretan gabilta. Urdaibairen kontserbazioa ere gure proiektuaren barruan dago. Aranzadirentzat egiten dugu lan eta proiektuen bitartez ateratzen dugu aurrera UBC. “Edozerri egiten diogu tiro-

ka, txoriei ezik”, esaten dugu txantxetan, mila saltsatan gaudelako. Beraz, gure proiektuen artean paduraren kudeaketa eta mantentze-lana dago. Bertan biltzen diren hegaztientzat erakargarri bilakatzen dugu padura.

- **Horrelako proiektuak aurrera eramateko pasioa beharrezkoa da?**

Bai, guztiz! Bederatzi pertsona gabilta hemen lanean, garbitzaileetatik hasita zuzendariarenganaino, eta denok daukagu pasio bera. Ordu asko sartzen ditugu bertan, baina gustuko orduak dira. Oso inplikaturik gaude eta hori nabari da. Familia sortu dugu bertan.

- **Euskadi Irratian txorien inguruan aritzen zara ostiraletan. Nolako esperientzia da zuretzat?**

Hiru urte daramatzat Faktoria saioan txoriei buruz berbetan. Moduren batean edo bestean hegaztien inguruko interesa dauka jendeak; badela gastronomiarengatik, ehizarengatik edo beste barik gustatzen zaialako. Baina badago hegaztien gauza bat gehienoi gustatzen zaiguna eta da bidaiatu egiten dutela (migrazioa). Sasoi bakoitzean gurean ditugun txorien berri eman, nondik nora dabil-tzan... jendeari interesgarria egiten zaio.

Ekhi Velar

**MALLA**  
ileapaindegia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

**NEREA IÑIGUEZ**  
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak,  
telebistak,  
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate  
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

# Andrak trature

**Baserritik bizi zan denporetan, andrena zan plazara, azogara trature eta salerostera jutian kargue. Mallabiko ia baserri guztietako etxekandrak arduratzen zien goizeroko jira hori eittiaz, euren astotxue lagun, bezperan atondutako etxeko generue kaletarren eskura ipiniz. Ordukuek, euren eta ingurukuen ahotik ondotxuen:**

“Eurre zanian be, juen ein biher. Esnie etxeik-etxe eta peoraik-peora partitzen zan; ontziren batera hustu eta astera kobrau. 1000 pzta.ko berdie goguen deuket, baiña plazara gitxitten agertzen zan ha! Diru zehie ebalten gendun: errielak, pezetak... Gero Maria Anittunera, Ermuko plazian onduen euan dendara, etxien bihar zana ekarriaz irabazixok gastatzera. Astuaz eitten gendun juen-etorrixue eta etxerutzien, kantsau-kantsau einde geu eta... asto gañera! Eibarren, Isasi gañien

petril bat euen, aukerakue haraxe igo eta handik salto eitteko astora. Eta gañien etxeraino! Osmaldeko Teresa astotik bajau eitten zan Mallebixen eta Bittoitteko tontorrien igoten otsen, aldapan astuek tratu txarra hartzen ebalata”.

**Marina Telleria, Aixpe baserrikue.**

“Ni 9 urtekin hasi nintzan Ermuko plazara bajetan eta 70 urtetik gora emon dot bertan. Etarazuz kontuek, bizitza oso-osue! Eibarkora be juen izan naz.

Oin kotxiaz, baiña lehenao astuaz eitten gendun ostetrie: asto-saretan esne marmittak ipiñi, alkarren kontra jausi ez zeixazen eta gañien gero ondo atondute eta lotute porrue, babie, intxaurrak, patatie... kargaute! Euri haundixek eitten zittuenien-eta, ez euenez biderik, astue iguel sartu lupetza artien, kargie alde batera mobidu, eutsi ein bihar norberak... baltzak! Eurrekin be ibillitte gaz eta haundixek zienien esneik barik laga biher bezeruek. Plazan be hotz haundixek pasaute gaoz:

geldixen, gorputze izoztute eta hankak berotu ezin. Gure astue...ene, estimau euki dot nik beti! Plaza osteko zerkan lotzen gendun eta gu trature: berba eittie, hartu emona, jendie serbitzie... horrek be gustatzen jakuz, ez pentsau! Bezere merke eta onan bille etorten da eta ortuaz beti ezin da, emoten dabena eta sasoiensasoiue hartu biher jake-eta”.

**Maritxu Urzurlaga, Urizar baserrikue.**

“Goxien-gox urtetan neban, oinez, eta sarritan basoik-baso. Eibarra, Ermure, Zaldibarra, Durengora... Gaztaiek eruten nittuzen eta sasoiensasoi bildotsak, Ermure endemas. Segiduen saltzen nittuzen saldu be. Zenbat biher eta zenbat ostera einde nauen, Jaungoikuek berak be ez daki!”. **Dolores Garitagotia, Aldapa baserrikue.**

“Hemen inguruen sagasti asko euen eta sagarra franco hartzen zan. Gure ama, Joxepa Espilla izenez, Plazentziraino jutun zan sagarrak saltza, astuaz; Eibarren be saltzen eban. Urzuletako Juan karruaz eta au-



Plazara bidien erretrataute.

**uriarte asesores** ✓

Aholkularitza fiskala  
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197  
48260 · Ermua · Bizkaia

Oh la lá!

EMAKUMEENTZAKO MODA

Goienkale behea, z/g  
48260 ERMUA (Bizkaia)  
Telefona: 943 53 57 48  
Mugikorra: 649 55 99 09  
ohlalaermua@gmail.com





Timotea Garitagoitia, astue trallan hartute.

zoko beste andra batzuk beran moduen astuaz, urten goxeko lauretan, Hanbreko errekan bota ure karruan ardatzai berotu ez deixan eta Plazentziraino, arre! Domeketan, han goxeko seiretako mezie entzunde etortzen zan! Urtebarri egun baten, Plazentzira sagar saltza doizela, Eibar pasatzie kostau ei jakuen itxurie. kalietan etxera erretirau bako mordo bat ebillen eta farola kendu, sagarrak eskatu, karroira igo... Enee, Azittainen atzian laga zittuenien, pozik! Gero, Plazentzire heldu eta ez zeuala plazakoik! Ezagunen baten peoran itxi kargok eta hutsik etxera! Prezixue pixkat bajau eta hurrengo eguenien saldu. Plazan beti egon da regatie: `Zenbat da?` eta `Honenbeste`. `Ba, honenbeste emongotsut`. Goratxuatik ipintzen eben prezixue, baekixen-eta beze-

ruek beheratxuatik joko ebela. Gurien amak kontatzen eban zelan behin Eibarren piper saltzen bera eta zenbaten ekazen prentau otsala bezero bateg. Emon prezixue, bestiorri larregi beginttandu eta esan otsala `Iruntzak emondakua!, berez urtendakuek ziela esan guranedo. Gure amak baekixenez haxek piperrak erueteko tartien zenbat biher einde euen, agudo bota otsala, `Zeuen teillatuen be egongo da iruntze eta... batu hantxe!`. Askok hoixe pentsatzen dabe: baserri-xen haixe eta euri hutsien etarutzen diela gauzak aurrrera, erein eta berez datozela. Baina bihera gogor ein biher izeten da eta, nik ikusi dotenagaittik, baserriko ejie andrie izen da beti: goxien gox altxau, le-xibie, jatorduek, ortue, oilluen kargue, plazara trature, etxera, basora... Da-

na! Gizonak eingo eban bihera, astunaue eta gogorraue, bai, baiña andrian bihera baserri-xen etenbake! Udegunien gero sagarra, idie, babie, artue... horrek danok batu eta traturreko preparau biher izeten zien, bezpera-bezperatik. Gure ama baiña pozik juten zan: kuadrillan jun, kontau norberan gauzak, bestien barri euki eta bueltan gero, hango irabazitxuekin, etxerako biher zana ekarri: arraine, orixue, jaboie...". **Santos Aranburu, Bengo baserrikue.**

"Gure amama, Jacoba Gerenabarrena, eta ama gero, Antonia Madariaga plazara juaten zian, astuaz lehelengo eta trenian gero, ze orduan hamen, gure etxe barreneko estaziñuan gelditzen zan. Danetik eruten zeben: ortuko generua, oilluak genduzanez arrautzak, sagarra eta ma-

katza zeunian... 92 urtekin ondiñok plazara juaten zan; tratuan errietan usauta zeualako-edo, eurretan ni baiño hobeto mane-jatzen zan. Gure amak gero ekan ekarri bat! Kontulari haundixa zan eta darian zekazen lagunak, baina lagun haundiña, astua. Gure Fernando. Amari gustau eitxen jakon plazako jiriori eta nere gizonak, zenbat bidar esaten zotsan, `Ama, zenbat balio dabe horrek sagarro? Neuk erosiko dotsudaz eta egon epeletan!`. `Ez, ezta eze-gaitxik bez!`. Plazako traturaga berak? Ezta... iñundik iñora bez!".

**Jesusa Azaguirre, Is-pilla baserrikue.**

"Ermuen ez zeunen gaur eguneko aukeraik fruterixa kontuetan: Dendabarri, Mendiola, Maria Anittu, Angela... Ultramarinosak zittunan danak. Gure amak, Tiburzia Ganboa, esnie, porruek, arrautzak, piperrak eta mahatsa be ekarritte-kue don Ermuko plazara. Gurien ugeri egoten zunan sagarra eta makatza eta, neu neskatie, akorduen jakanat amakin Elgoibarra eta Eibarra sagar saltza juten nintzunala. Gure amata gaztiek zittunanien sagar saltza Bitorixara juten zittunan: sarak beteta sagarrez, burdixaz bajau Maltzara, kargau trenien eta aide, kapitalera! Orduko ipoiñek!".

**Mari Kamen Urkidi, Antño-Gottd baserrikue.**

Estibalitz González



Mediku psikiatra  
Psikoterapia psikoanalitiko  
Psikosomatika

Fernando Urizar Barandiaran

Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04  
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06  
furizar1@yahoo.com



PUB YOMY

Zubiaurre  
kalearen  
bihotzean

# Agurtzane Delgado eta Ainhoa Mujikaren Giza Eskubideak errespetatzeko eskaera

Agurtzane Delgado ermuarrak eta Ainhoa Mujika donostiarrak Alboloteko (Granada) kartzelan bizi duten egoera salatu dute Ermua eta Euskal Herriko 35 eragile eta elkartek. Ermuko Emakumeen Asanbladak igorritako mezuan preso horien egoeraren berri ematen da eta hainbat eskaera egiten die Ermuko Udalari haien Giza Eskubideak errespetatzeko neurriak hartzeko. Gainera, martxoaren 2 eta 3an martxa antolatu da Granadaraino.

2000. urtean Frantzia atxilotu zuten Agurtzane Delgado 'Madril komandoko' kide izan eta Diego de Prado y Colón de Carvajal enpresariaren bahiketaren parte-hartzea egotzita. 2007an Espainiara estraditatu zuten eta Alboloteko (Granada) kartzelan dago gaur egun. Ez dago, ordea, ohiko presoaren egoera berdinean, isolamendu-erregimenean dago denbora mugagaberako. Horren arrazoia da, 9. moduluko komunak halaberrez garbitze-ari uko egitea.

Ermuko Emakumeen Asanbladaren arabera, erabaki diskriminatzaile eta matxistak jasan behar izan dituzte pre-

soek: "Emakumeentzako jardueren murrizketa, gizonen ez elkartzeko modulutik kanpoko jardueren debekua, gizontzako bakarrik antolatutako ikastaroak...". Horiek tarteko, Agurtzane Delgado eta Ainhoa Mujikak uko egin zioten euren moduluko komunak garbitze-ari 2017ko maiatzean ("gizontzako komunak ez da hori egiteko behartzen, lan hori egiteko taldea dagoelako eta horregatik saritzen zaie", dio Asanbladak. Ermuko Emakumeen Asanbladak adierazi duenez, arau idatzirik ez badago ere, azkeneko bost urteetan emakume presoak, "eta emakumeak soilik", derrigor-tzen dituzte komunak garbi-



**MARTXA GRANADARA**  
**MARTXOAK 2** Ermutik eta Egiatik  
 Agurtzane eta Ainhoari babesa ematera...

**IRTEERA:**  
 \*20:00etan Agirre kiroletik.

**ITZULERA:**  
 \*16:00retan ALBOLOTEko esporetatik.

Txartelak Ermuko Txala, Infren eta London

tzera, eta egoera "diskriminatzaile eta matxista" hori salatu nahi izan dute Delgado eta Mujikak. Ondorioz, 2017ko maiatzaren 18az geroztik, "eta kartzelako zuzendaritzak hala erabakita", isolamendu-erregimenean daude bi emakumeak.

## Isolamendu-erregimenearen baldintzak

Zazpi hilabete daramatzate Delgado eta Mujikak isolamendu-erregimenean eta, Ermuko Emakumeen Asanbladak adierazi duenez, "hauek dira Agurtzane eta Ainhoak bizi dituzten baldintza errealak". Bate-tik, leiho bakarra duten lur azpiko ziegetan daude, goizetan

"argi apur bat" sartzen zaie. Bigarrenik, ez dute berogailurik, haize hotza sartzen uzten duen gailu bat besterik ez. "Gehienez ere 11 gradu izaten dituzte ziegan, kontuan hartuta negua han oso gogorra dela", azpimarratzen dute. Hirugarrenik, gau eta egun eskura duten arropa guztia jantzi behar dute eta hori ere "mugatu" da. Laugarrenik, ziega "oso txikia" da "Berotzeko 6 pauso besterik ezin dituzte eman, diagonalean ibiliz". Bosgarrenik, lehen egiten zizutzen hezkuntza- edo prestakuntza-jarduerarik ezin dute egin orain, ez eta gainerako emakume presoekin harremanik izan ere. Seigarrenik, bi or-



**Modas Cande**  
 Candelaria Rueda

Diputación, 12 | 48260 ERMUA Bizkaia  
 T 665 703 904  
 modascande@gmail.com



Iberikoetan  
 espezialistak

**Mayte**

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA  
 943 172 412



**ZUZENBIDE KONTUAK**  
 Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina  
 Tel: 846080080  
 Mugikorra: 688885435  
 zuzenbidekontuak@gmail.com



**SEHIGA**  
 PROTECCIÓN LABORAL  
 "LAN BABESERAKO  
 ORNIDURA"

Goienkale kalea (Ermua)  
 Tel: 943 172 454  
 sehiga.proteccionlaboral@gmail.com



**CAPRI**  
 PIZZERIA  
 943 03 33 15



duz besterik ezin dira irten (goizez eta arratsaldean) patio txiki batera (15x5 metrokoa), “eta ezin dute beste inora irten”. Zazpigarrenik, euren arropak garbitzeko tresna nahikorik ez dute eta fregonaren kuboan garbitu behar izaten dute. Eta zortzigarrenik, “giza eskubideen babesa ukatzen zaie bizitzako arlo eta egoera guztietan; askatasun-ezaren zigorrak ez du inondik inora tratu diskriminatzaile eta iraingarririk, eta mendeku eta zigor matxistatik justifikatzen”.

Agurtzane eta Ainhoa Granadako Alboloteko kartzelan bizi duten egoerak kartzelak zuzentzen dituztenen “etika-eza” kezkarria erakusten du, Ermuko Emakumeen Asanbladaren ustetan. “Horrelako eraso larriak eta preso dauden emakumeen oinarrizko giza eskubideen mespretxua ahalbidetzen dutelako, hain zuzen, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak eta emakumearen kontrako diskriminazio-era guztien

kontrako Konbentzioan jasotzen diren eskubideak”. Elkar-tearen iritziz Giza Eskubideak eta berdintasuna defendatzen dituen “inork” ez luke horrelakorik onartu behar.

### Ermuko Udalarari eskaera

Agurtzane Delgado eta Ainhoa Mujikari elkartasuna adierazteko agiria sinatu duten eragileek bi preso isolamendua bertan behera geratzea eskatzen dute. Gainera, gizon eta emakumeen berdintasunaren kontrako neurri diskriminatzaileak ez hartzea eta euskal emakume preso eskubideak errespetatzea exijitzen dugu”, adierazten dute. Horretarako, kolektibo moduan mozioa aurkeztu nahi izan zuten Ermuko Udalean, baina udaleko prozedimenduek ez dute horrela egitea uzten eta Bilduk aurkeztu du azkenean mozioa.

Hiru gauza eskatzen dizkiete Ermuko Udalarari. Batetik, Alboloteko Kartzelako zuzendaritzari idatzi bat bidaltzea ema-



kumeen kontrako jardute matxista diskriminatzaileak, “berreziki Agurtzane Delgado eta Ainhoa Mujika euskal preso ezarritako zigor matxista, salatzeko”, eta jasaten ari diren isolamendua berehala amaitu dadin eskatzeko. Bigarrenik, “Instituzio Penitentiarioetara idatzi bat bidal dezala Alboloteko Kartzelako zuzendaritzari aipatutako isolamendu eta diskriminazio-egoera bertan behera uztea agindu diezaion”.

Eta hirugarrenik, “Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari eta Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeari jakinarazi diezaiela 2017ko maiatzaz geroztik Ainhoa eta Agurtzane presoak zigor bikoitza betetzen ari direla emakume izate hutsarengatik, eta karteletan emakume presoenganako berdintasuneko tratu duina berma dezatela”.

Ekhi Velar

GURE EMAITZAK  
EZIN HOBEAK DIRELAKO,  
HILABETE HONETAN  
LEHENENGO ZONALDEA...

GUZTIZ  
DOHAINIK

ETA GURE KLUBAREKIN JARRAITZEN DUGU...

943844704

ermuacentro@nomasvello.com

no+vello.



## Laburbira egingo da martxoaren 1ean

Ermuak Laburbira jasoko du martxoaren 1ean 20:30ean Ermua Antzokian. Euskarazko film laburren zirkuitua da Laburbira eta hainbat pelikula ikusteko aukera egingo da herrian. Ilunpetan (Koldo Carranza), Night Shift (Izaskun Arandia), Higadurak (Oihane Zunzunegi eta Amaia Otaola), Ejecutor (Javi Arriaga), Tazan (UDA films), Areka (Atxur animazio taldea), Kreba (Oier Fuentes) eta Zulo (Erika Olaizola eta Amancay Gaztañaga) lanak egingo dira ikusgai. Azken filmaren egileetariko bat, Erika Olaizola, egingo da emanaldia- ren ondoren izango den solasaldian.



### II. BERTSO POTEA OTSAILAREN 22AN

lazko estreinaldi onaren ostean badator II. Bertso Potea. Helburua bertsoan gozatu eta ondo pasatzea denez, bi bertsolari handi girotuko dute aurtengo saioa, Andoni Egaña eta Unai Iturriagak.

Hiru ataletan banatuko da saioa. Batetik, 21:00etan hasi eta 21:45ak arte, libreko saioa eskainiko dute Egaña eta Iturriagak. Gero, 21:45etik 22:15era geldialdia egingo da eta pikatzeko tortila, txorizoa eta bestelako jakiak eskainiko dira edariaz gain. Eta azkenik, 22:15etik 23:00etara bigarren saioa egingo dute bertsolariak.

Torrekua tabernan egingo da Bertso Potea eta bertsoez gozatzeaz gain afaldu eta edan ahal izateko 10 euroko tiketak erosi behar izango dira.

Lasier da II. Bertso Potea saioa. Hiru atal izango ditu.

- 21:00etan hasi eta 21:45ak arte libreko saioa
- 21:45etatik 22:15era geldialdia. Pikatzeko tortilak, txorizoa... edaria ea izango da (10 eurotan izango dira tiketak salgai)
- 22:15etatik 23:00etara bigarren saioa bat.

**II. BERTSO POTEA**  
Andoni Egaña  
Unai Iturriaga





**ERMUA**  
Torrekua Tabernan  
Otsailaren 22an, 21:00etan  
Tiketak: 10 euro

## Streamer topaketa Izarra Centren

Omnis enpresak Omniscon ekimena antolatu du otsailaren 24rako eta streamerren topaketa egingo da bertan lehenengo aldiz. Streamerren komunitatearen garapena bultzatzea da jardueraren helburua eta bideojokoen zaletuak batzea espero da. Bideojokoetan jolasten duten bitartean zuzeneko emisioak eskaintzen dituzten pertsonak dira streamerrak, eta horretarako Twitch.tv bezalako plataformak erabiltzen dituzte. Twitch plataforman edukiak sortzen dituzten 10 erabiltzaile baino gehiagok parte hartuko dute topaketan, eta Alex Robleno (Omnisen sortzailea) eta Nebukai streamer donostiarra izango dira aurkezleak. Gainera, xNaet, Silithur eta Little Mary bezalako erabiltzaile ezagunen babesak izango dute. Era berean, euren partidak online eskaintzen dituzten pertsonak haien edukiak munduaren aurrean erakutsi eta azaltzeko aukera izango dute, eta lehenengo aldiz ikusleen aurpegiak ikusiko dituzte. Ominsek Izarra Centren duen egoitzan egingo da topaketa eta 16:00ean hasiko da. Sarrera doakoa da, baina plaza kopurua mugatua denez, beharrezkoa da izena ematea bertaratze galdetegia beteta.


# OMNISCON

**Streamerren arteko topaketa**  
Programa zuzenean

**Otsailaren 24an**  
**16:00etan**  
**Ermuko Izarra Centren**

Etor zaitetz ondo pasatzera eta ezagutu itzazu hainbat eta hainbat streamer twitch.tv-eko bazkide eta afiliatuak

Erreserbatu zure plaza: [contact@omnisclub.com](mailto:contact@omnisclub.com)





Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527



**CITROËN**

**AUTOS AMEDI**

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.  
Telefonoa 943 17 04 14

# T

XALAPARTA  
ABERNA

**Etan asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!**

**Erdikokale 13  
(Ermua)**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**ENKARGYAK**  
**943 030 299**



# XI. Piropo Lehiaketa martxan



Ermuko Euskara Sailak piropo lehiaketa antolatu du euskara modu sortzaile, ez-sexista, adierazkor eta ludiko batean zabaltzeko asmoz. Euskarazko piropo bat baino ez da behar parte hartu ahal izateko eta hiru kategoria egongo dira: 14 urtetik beherakoa, 14-17 urte bitartekoa eta 18 urtetik gorakoentzako. Piropoak aurkezteko ere hiru modu daude: euskara@udalermua.net helbidera mezu bat bidaliz, liburutegian dagoen kutxatilan sartuz, edota WhatsApp bat 616 02 75 85 telefonora bidaliz.

Martxoaren 11an amaituko da piropoak aurkezteko epea eta hainbat sari banatuko dira ondoren. 14 urtera arte: 50?-tako erosketa txekoa, 14-17 urte bitartekoentzako: 100?-ko txekoa, 18 urtetik gorakoentzako: Bi pertsonentzako La Perlan sasoiaren jartzeko Talaso Zirkuitua, masajea aromaterapiarekin eta dastatzeko menua La Perla Jatetxean.

**XI PIROPO LEHIAKETA-2018**

**Ermuko Euskara Sailak piropo lehiaketa antolatu du euskara modu sortzaile, ez-sexista, adierazkor eta ludiko batean zabaltzeko asmoz**

**QINARRIAK**

- Lehiaketa zertan datza: Parte-hartu nahi duen gizon zein emakumeak euskaraz idatzitako piropoa besterik ez du egin behar.
- Hiru kategoriak: 14 urtetik beherakoa, 14-17 urte bitartekoa eta 18 urtetik gorakoentzako.
- Non aurkeztu:
  - euskara@udalermua.net helbidera mezu bat bidaliz
  - Liburutegian dagoen kutxatilan sartuz
  - Edota WhatsApp bat 616 02 75 85 telefonora bidaliz
- Nola aurkeztu: batetik piropo bera eta besterik, izena, adina eta harremanetarako telefonoa edo emaila.
- Sariak:
  - 14 urtera arte: 50?-tako erosketa txekoa
  - 14-17 urte bitartekoentzako: 100?-ko txekoa
  - 18 urtetik gorakoentzako: Bi pertsonentzako La Perlan Sasoiaren Jartzeko Talaso Zirkuitua, Masajea Aromaterapiarekin eta Dastatzeko Menua "La Perla Jatetxea"n
- Aurkezteko epea: Otsailak 14tik (San Valentín eguna), martxoaren 11ra arte (barne).

# 'Irakurri, gozatu, oparitu' martxoaren 20tik maiatzaren 31ra

Euskaltzaleen elkarteek, Udalek, liburutegi publikoek eta liburu dendek elkarlanean 11. urtez antolatuko dute aurten IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU egitasmoa. 2017ko martxoaren 20an hasi eta maiatzaren 31ra arte iraungo du. Aurten inoiz baino herri gehiago ari dira euskarazko irakurzaletasuna sustatzen: guztira 52 herri abiatu dute IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU. 2017an 450.000 pertsona baino gehiagok izango dute aukera "1001 mundu" ezagutzeko! Egitasmoaren helburu nagusiak dira irakurzaletasuna bultzatzea, literaturarekin gozatzea eta gozaraztea, irakurtzeak eta oparitzeak (zein opariak jasotzeak) dakarten gozamenaren bidez. Horregatik, prozesu aberasgarria eta parte hartzaileentzako abantailak proposatzen dira.

Hiru pauso bete behar dira parte hartzeko. Batetik, irakurri eta, horretarako, liburutegira joan eta euskarazko edozein liburu maileguan hartu behar da. Bigarrenik, gozatu. Liburua irakurri, liburutegira itzuli eta fitxa erraz bat bete behar da liburuari buruzko iritzia jarritz. Fitxa betetzean, irakurleak erosketa-txekoa jasoko du hitzartutako dendan erabiltzeko. Eta azkenik, oparitu. Azken pausoa, liburua oparitzea da: lagun bati, senide bati edo norbere buruari.



**Ferreteria**  
**ANBOTO**  
**Burdindegi**

**Orain KOTXEKO GILTZEN KOPIAK ere egiten ditugu**

943 17 69 76  
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)  
www.ferreteriaanboto.es



Bitsi-denda Tailor propicia Edoju-denda

**Senén**  
1978

Diseinuak eta kalitateak  
bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

## MALLABIKO FRONTENIS TXAPELKETA

A.D. Mallabia F.T.-k Mallabiko Frontenis Txapelketa antolatu du martxotik maiatzera. Liga sistema bitartez egingo da txapelketa eta, mailaren arabera, zortzi jokalariz osatutako taldeak egingo dira. Bestetik, partiduak eskuz eskukoak izango dira.

Martxoaren 4ean amaituko da txapelketan izena emateko epea. Horretarako, 669 028 718 telefonora deitu behar da. Taldeko bazkideek 8 euro ordaindu beharko dute eta, gero, euro bat gehiago txapelketan jokatzeko duten partidu bakoitzeko. Bazkideak ez direnek, berriz, hasierako 8 euroez gain beste 2 euro ordaindu beharko dituzte partidu bakoitzeko.

## Martxoaren 8ko egitaraua prestatzen

Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatuko da martxoaren 8an eta herriko elkarte feministek eta udaleko Berdintasun Sailak hainbat ekintza egingo dituzte egun horren inguruan. Greba dago deituta munduan eta, horren harira, egutegia prestatzen ari dira Ermuko eragile feministak. Dagoeneko zehaztu da 'Martxoaren 8ko' kartel lehiaketaren irabazlearen izena. Myriam Cameros nafarrak irabazi du aurtengo lehiaketa 'Evidenciar' izenburua daukan kartelarekin eta teknika mistoa erabili du lana egiteko, grafikoak eta tresna digitalak uztertuz. Lana Emakumearen Nazioarteko Eguneko jarduera programa eta kartela iragartzeko erabiliko da. Bertan, emakumeak derrigorrezko zaintza lanei agur esaten ikus daitezke globo aerostatiko batean islatuta.



## Disko berria aurkeztu du Izarok

Izaro Andres musikari mallabitarrak disko berria kaleratu du, 'Eason'. Bere 'Om' lehen diskoak arrakasta handia izan zuen eta Mikel Urdangarin eta Gatiburekin egindako kolaborazioekin denon ahotan jarri da Izaro. Disko berria aurkezteko pare bat kanta aurreratu zituen mallabitarrak eta, orain, Bilboko Arriaga Antzokian eta Donostiako Victoria Eugenia eskainiko ditu bi kontzertu martxoaren 8 eta 9an, hurrenez hurren. Ondoren, Iruñea, Madril, Gasteiz, Santiago, A Coruña, Bartzelona eta Vic-en eskainiko ditu emanaldiak. Izarra jaio da.



**esanline**<sup>®</sup>

+ @ + TV + Smartphone

☎ 846 080 010  
Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua  
💻 [esanline.es](http://esanline.es)

**BERRITZE LANAK**  
ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK  
LAGUNDUKO DIZU

**SPARA**  
rehabilitación + sostenibilidad

ZUK ERABAKI

www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eralkina Zeharkalea, 36, 3º 48260 Ermua -Bizkaia-

**enolimp**  
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23  
E-maila. [enolimp@hotmail.com](mailto:enolimp@hotmail.com)  
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak  
Obra amaiera eta erreformak

[www.enolimp.es](http://www.enolimp.es)

**Horacio Decoración**  
VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 80  
[www.dghoraciodecoracion.com](http://www.dghoraciodecoracion.com)

Tapizaria - Altzariak - Osagarrak



# Euskaraldia da helmuga, baina baita bidea ere

**Erronka handia jaso zuten joan den azaroaren 23an euskal herritarrek. Hamaika egunez euskaraz egiteko apustua da Euskaraldia, herritar euskaltzaleak aktibatuta hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen egitasmoa. 2018ko azaroaren 23an abiatuko da erronka, baina aurretik hamaika egun horretakoak bezain besteko garrantzia izango du lanak. Ermuan hasi dira Euskaraldirako prestatzen, ermuarrok ere erronkari eutsiko diogulako.**

**2**018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean Euskaraldia izango dugu Ermuan. Hamaika egunez gure ingurune naturalean euskaraz egiteko martxan jarritako ariketa soziala da Euskaraldia. Baina, ez hori bakarrik: hamaika egun horietara heldu arte egingo dugun prozesua eta lan egiteko modua ere bada.

“Ariketa irekia da, ahalik eta jende gehienarekin partekatatu nahi duguna”, azaldu digu Ermuan Euskaraldia prestatzeko lanetan diharduen tal-

deak. Alde batetik, euskaltzale aktiboengana heltzea da helburua; eta bestetik, euskara jakin ala ez, edozein arrazoi tarteko, egunerokotasunean euskara erabiltzen ez duten edo oso gutxi erabiltzen dutenengana iristea.

“Hala ere, zer den jakitea bezain garrantzitsua iruditzen zaigu zer ez den argi izatea: ez da jai huts bat izango”, azpimarratzen dute. Hamaika egun horietan zehar norberaren ingurune hurbileko zirkuluetan aldaketa sorraraztea da helburua; horregatik, era-

biliko den hitza “normaltasuna” da. “Ez ditugu ezohiko gauzak egingo, ohiko gauzak euskaraz baizik, hamabigarraren egunean ere euskaraz jarraitzeko asmoz”, zehazten dute.

## Entrenamendu txikia maletzean

Abenduko Euskaraldia iritsi baino lehenago, dena den, entrenamendu txiki bat egingo da parte-hartzaileen mingainak berotzen joateko eta norbanako zein erakundeak aktibatzen joateko. “Maiatzaren 25etik 27ra bitartean, hiru egunez euskaraz arituko gara”, adierazi digute. “Egun horietan zehar, ekintza ezberdinak izango ditugu goiz eta arratsalde, baina horiek osagarriak izango dira soilik. Hau da, herritarrok izango gara honen guztiaren ardatz eta motore, gure aldaketarik gabe

ez baitago ezer eginik”. Ekintzak gehigarriak izango dira euskara eroso eta gune naturalean erabiltzeko, egunerokotasunean.

Helburuak lortzeko bidean “elkarte askok” eman dute izena dagoeneko, ekimenean parte-hartu eta haien hizkuntza-ohiturak pixka bat aldatzeko. Antolatzaileen berbetan, gainera, “gehiago izango dira hemendik eta maiatza bitartera izena emango dutenak”. Euren iritziz, “herri oso baten nahia” da; “Ermuan Bagarelako!”. Beraz, mezu bat igorri nahi diete herritarrei: “Hasi datak zuen agendetan gordetzen eta jendea aktibatzen hasten. Ez gara bakarrik, beste hainbat herritan lanean ari dira gure antzera, eta hau hasi besterik ez da egin”. Erronka airean dago, harrapaztea besterik ez da falta.

Ekhi Velar



**mari asun**   
LORADENDA  
Diputazioa 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

**URRETA** **burdindenda**

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Savrailagintza
* Brikolajea	* Kit altzariak
* Errailak	

Beharkealea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA

**Caperos**

Pinxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitaratekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**KARABIXA**

**KARABIXA KAFETEGIA**  
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

Aitor González eta Peio Goikoetxea, txirrindulari profesionalak:

## Inoiz baino ilusio handiagoarekin

Euskal txirrindularitzak loraldia bizi du gaur egun. Bi gurpilen inguruko zaletasunak puntu gorena bizi izan zuen Euskaltel-Euskadi taldearekin sortutako marea laranjarekin, eta hura desagertu bazen ere, txirrindularitzak toki berezia bete izan du beti zale euskaldunengan. Azken urteotan talde euskaldun berriak ageri dira munduko onenen artean toki bat egiteko asmoarekin, eta Ermuko ordezkari dago horietan.

**E**rmua eta inguruko errepideek ez daukate sekreturik Aitor González eta Peio Goikoetxearentzat. Ermuko txirrindulariek milaka kilometro egin dituzte bertan, lehian zein entrenatzen, eta bertan ikasitakoak txirrindularitzaren goi-mailan muturra sartzeko balio izan die. Bidea ez da erraza izan, malda gogorak egon dira, bai errepidean bai errepidetik kanpo, baina maila eta lan gogorra elkartzen direnean helburuak lortzea errazagoa izaten da eta hori ez zaie falta Aitor eta Peiori. Borroka handia egin dute profesionalen artean tokia aurkitzeko eta helburua lortu dutela esan daiteke. Euskadi-Murias eta Euskadi-Fundazioan ari dira gaur egun González eta Goikoetxea, hurrenez hurren. ProContinental mailan lehena eta Continentalean bigarrena (txirrindularitzaren bigarren eta hirugarren mailak izango lirake, nahiz eta lasterketa batzuetan lehen, bigarren zein hirugarren mailakoak elkarrekin aritzen diren). Biak

ala biak munduko txirrindulari handien aurka ari dira hainbat lasterketetan, baina ez dira kikiltzen.

Denboraldi hasiera honetan erakutsi dute zeresana emateko asmoarekin ekin diotela 2018ari. “Egia esan pentsatzen nuena baino hobeto ibili naiz Mallorca eta Valentzian”, aitortzen du Peiok. “Aurrendenboraldi osoa Calpen (Alacant) egin dut, eguraldi onaren bila. Ondo entrenatu dut eta gogotsu ekin diot denboraldiari, nire puntu gorena denboraldian aurrerago lortuko dudala jakinda”.

Aitorrek ere sentsazio onak izan dituela adierazi digu. “Indartsu nagoela uste dut”, dio Euskadi-Muriasekoak Mallorcako Challengean sprint berezietan puntu gehien lortzeagatik podiumera igo ostean. Mallorcan lehiatu eta gero Atlantikoa gurutzatu zuen Gonzálezek aurten lehen aldiz jokatu den Colombia Oro y paz lasterketan aritzeko, eta handik erantzun digu. Bero handia izan dute Hego Amerikako herrialdean,



Euskadi Fundazioaren maillot laranja eramango du soinean Peiok.

bai tenperatura aldetik bai publikoaren zaletasunarengatik. Irudi ederrak utzi ditu Kolonbiako lasterketak, baina ermuarra ez da nahi bezain ondo ibili. Hala ere, denboraldi hasiera besterik ez da eta Aitor gogotsu dago. “Kolonbiatik itzultitakoan Haut Var-ko Tourra egingo dut Frantzian eta 20 eguneko atsedeen ostean beste lasterketa batzuk prestatuko ditut”. Begia bota dio hainbat lasterketari eta irabaztea da bere erronka. “Beti helburu hori eduki behar da”.

### Profesionalerara iristeko bidea

Aitorren hirugarren urtea da Murias taldean, baina aurrenekoa ProContinental

mailan. Maila bat igo du taldeak eta, ondorioz, maila handiagoko lasterketetan arituko da aurtengo denboraldian. “Orain, adibidez, Kolonbian nago, eta iaz taldea ez zen Europatik ere irten”. Ermuarrak gehiago eskatuko dio aurten bere buruari. “Egindakoa gutxi dela pentsatzen dut beti”. Hala ere, pozik dago azken urteotan lortutakoagatik.

Orain dela bi urte Drogeteniturrin egindako elkarrizketan adierazi zuen zaila zela profesionaletan tokia lortzea, baina Gonzálezek aurkitu du berea. “Jon Odriozolak aukera eman zidan eta oso gustura egon naiz taldean. Aurten ere fitxaketak egin dira, baina ondo hasi dut urtea”. Aurtengoan au-

solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



optika

itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51





Euskadi-Muriasekin lehiatuko da Aitor.

rrerapausoa emateko asmoarekin da ermuarra eta saiakera, behintzat, ez da faltako.

Profesioaletara heltzeko Peiok jarraitu duen bideak kilometro gehiago izan ditu. 2016an Kolonbiako Postobon taldearekin fitxatu zuen eta asko ikasi zuela dio Goikoetxeak. “Gauza onak eta txarrak egon ziren. Kanpotar ba-

karra nintzen eta ez zen erraza izan, baina alde positiboarekin geratzen naiz”. Berarentzat aberasgarria izan zen kultura desberdin baten egunerokoa bizitzea. “Dena ez da kirola”.

Kolonbiatik bueltan AMPO taldera itzuli zen eta oso denboraldi ona bete zuen 2017an. Profesioaletan bere tokia aurkitzeko “azken saiakera” izan zela aitortu digu eta urtean zehar lortutako emaitzek toki hori eskaini diote 2018an. “Maila honetan irautea da nire helburua orain”, dio Goikoetxeak, beti ere Euskadi Fundazioko mailota munduan zehar “ahalik eta gehien” erakutsiz, izan ere, Maillot laranja soinean eramatea ez delako nolanhikoa Peioarentzat.

#### Euskal talde gehiago

Euskadi Fundazioak zale-tuen maila utzi eta Continental mailan aritzeko erabakia hartu du aurten. Horretarako, euskal zaleentzat berezia den kolore laranja eramango du soinean eta Mikel Landa txirrindulariak hartu du proiektuaren ardura. Motibazio bikoitza Peioarentzat. “Mikel Landa bezalako nagusia izate-

ak motibatu egiten gaitu eta maillot laranja eramatea oso berezia da. Txikitatik joan izan naiz Tourrera maillot laranjaekin eta orain soinean eramatea oso hunkigarria da. Gozamena!”.

Txirrindularitza oso errotuta dago Euskal Herrian eta profesioaletan dauden taldeek argia eman nahi diote euskal txirrindularitzaren etorkizunari. Movistar Team nafarra WorldTourrean, Caja Rural nafarra eta Euskadi Murias ProContinentalean, eta Euskadi Fundazioa Continentalean badaude ere, talde guztientzat tokia dagoela adierazten dute Aitor eta Peiok. Gonzalezen ustez, “gauzak ondo egiten badira, denontzako egongo da tokia”. “Harrobia zaintzen bada, euskal txirrindularitzak zeresana emateko gaitasuna dauka”, dio Goikoetxeak.

#### Surkoko grupeta


Eurek bezala profesionalen mailan bidea egiten ari diren hainbat kiderekin egiten dituzte entrenamenduak ermuarrek Surkoko grupetan, baina txirrindularitzan esperientzia handia duten gizonak ere irteten dira bizikletan eu-

rekin. Haimar Zubeldia, Markel Irizar, Aitor Galdos eta Amets Txurruka, besteak beste, Surkoko grupetaren kide dira eta gazteenek euren aholkuak adi entzuten dituzte kilometroak bata bestearen atzetik jaten dituzten bitartean. “Eurek irakatsitakoa praktikan jartzea besterik ez zaigu falta guri!”, dio Peiok.

Txirrindulariak izanda, bizikletaren inguruko kontuez aritzen dira sarritan entrentzen duten bitartean, baina egunerokotasuneko bestelako kontuek ere badute presentzia euren berriketaldietan. “Aurten, adibidez, Euskal Herriko Bertsolaritza dela-eta errima asko izan ditugu lagun”, azaldu digu Peiok.

Ermuko txirrindulari biek adierazi digute oso garrantzitsua dela horrelako lagun talde batekin entrentzea. “Momentu txarretan batez ere, hor daudelako laguntzeko prest”, aitortzen du Aitorrek. Bestetik, Peioarentzat berezia da jendearen iritziak entzutea, “bai kirolerako bai eguneroko bizitzarako”. Eta aurten euren garaipenen berri ematen kontu kontari ibiltzen badira?

Ekhi Velar



## Ongarai eskolako Haur Hezkuntzakoak altxorraren bila

Aurtengo Inauterietan pirata mozorrotu garenez, benetako piratak bihurtzea erabaki dugu. Horretarako piraten abestiak eta olerkiak ikasi ditugu, pirata ontziaren jolasa egin dugu, piraten hiztegia sortu etxera eramateko eta benetako loritorik sordaldan jartzeko ez genuenez, margotegian bakoitzak berea egin dugu luma eta guzti.

Lan hau egiten ari ginen bitartean, guk jakin gabe, Argitxo guri begira egon da, eta zein izango ezustea, eta... "Altxorraren bila" jolasa antolatu digu! Eskolan zehar pistak utzi dizkigu altxorrera heltzeko. Abentura honetan guztiz murgiltzeko gure gelako pirata bandera hartu eta pistak jarraitu ditugu. Eskolako leku ezberdinetatik pasatu gara, itsasoan igeri, zubia gurutzatu, palmondoen azpitik pasa ondoren, gure altxorra aurkitu dugu!

Izugarrizko abentura izan da eta primeran pasatu dugu!



### Elkarbizitza hobetzen Lobianon

Aurreko hiruhilabetekoan zehar Ongarai eskolako 4. mailako ikasleok Elkarbizitza tailerra izan genuen Lobianon.

Ipuinez eta margolanez baliatu ginen beste ume batzuen lekuan ipintzeko, hau da, besteak nola sentitzen diren konturatzeko. Horrela, besteen arazoak hobeto ulertu genituen eta, gainera, ezin hobeto pasatu genuen!



### Matematikak lantzen sukaldean: zatikien bizkotxoak

Gabonak heltzeaz zeudela ospatzeko eta zatikiak ikasten ari zirela aprobetxatuz, 5. mailako ikasleek txokolatzeko bizkotxoak prestatzea erabaki zuten.

Baina, bizkotxoaren errezetak tranpa zeukan, kantitateak zatikietan adierazita zeudelako. Beraz bizkotxo prestatzeari ekin baino lehen, gure "Michelin sukaldariak" kopuruak kalkulatu behar zituzten matematikako azken unitatean ikasitakoa aplikatuz.

Oso gustura aritu ziren lanean eta emaitza argazkietan duzue. Benetan goxoak bizkotxoak!!!

Nahi izanez gero hor duzue erreze-ta probatzeko!





**LEIRE MAYORA**  
**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
☎ 943 17 47 44



**san pelayo**  
clínica dental horts klinika

San Pelayo 5, 1º  
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

**943 17 04 04**

**OSASUNA • ESTETIKA**  
**EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apaindegi bat baino gehiago!!*

 **Egokitutako burua garbitzeko konketa**

**943 17 28 09 • Goienkale 12**



**SAGARDUI**  
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305



**KRABI**

Ileapaindegia  
Estetika

**Tel: 943 03 17 56**

Diputazio, 5

ERMUA





# Kartzelan izan naiz

**G**ranadan. Bariku eguerdian beharretik irten, pintxoak jan eta bidetari ekin genion lagunak eta biok. Euritsua eta hotza izan zen urtarrileko azken aste-burua. Txingorra itzela bota omen zuen Ermuan. Guk zortea izan genuen, bidaia nahiko erosoak izan zen, Burgo-seraino euri dezente bota bazuen ere. Okerragoa izan zitekeen, Somosierra igotzean elurra ari baitzuen. Madrilen atertuta, Granadara orduko, azken mendi-portuan beste elur apur bat izan genuen, baina onik iritsi ginen zortzi orduko bidaia egin ondoren.

Hotza zen gaua Alboloten. Tabernan afaldu eta bertako hotelean oheratu ginen. Jaiki, armosua hartu eta espetxera abiatu ginen. Aurretik gasolindegian gelditu ginen, depositua beteta, bisita amaitu ondoren ahalik eta lasterren itzultzeko. Gasolindegiko langileari, 7oCok ohikoak ziren galdetu genion. Baietz erantzun, neguak oso hotzak direla Alboloten, udak, aldiz, oso beroak.

Eguerdiko 13:00ean genuen hitzordua Agurtzane Delgado Iriondo ETAKo presoarekin. Ordu bat lehenago kartzelan egon behar ginen bisitarako egin beharreko tramiteak agin ahal izateko. 11:30ean iritsi ginen, hotz demasa egiten zuenez bertako tabernara sartu ginen. Jendez lepo zegoen, senideak edo lagunak bisitatzeko zain jendea. Bisitarako prozedura jakitearren, Euskal Herritik joandako beste-

engana jo genuen. Berehala identifikatu genituen, erreza zen ijito etniako hainbeste pertsonaren artean.

Atentzioa eman zidan, ijito kartzela ematen zuen, gu kenduta gainontzeko ia guztiak pertsona ijitoak baitziren. Gazteak, oso. Emakumezkoak gehienak, bere semea edo senarra edo aita bisitatzera zihoazenak. Emakume gazteak, batzuk hiruzpalau seme-alabekin. Pobreentzako kartzela da Albolotekoa.

Lehenengo segurtasun atea zeharkatu ondoren, margolan erraldoi bat zeukan gelan bildu gintuzten bisitariok. Olerki bat idatzita zeukan gazteleraz. Iraingarria. Ezin izan nuenez hitzez hitz jaso, Mikel Laboaren kanta erabiliko dut itzultzeko: "Lapur txikiak kastingatzeko non-nahi badago kartzela, handiak hor ikusten ditut paseoan dabilzala". Sarkasmo hutsa.

Segurtasun beste bi ate zeharkatuta Agurtzanearengana iritsi ginen. 40 minutuko elkarriketa izan genuen. Gela hotz eta zaindu gabeko batean zeuden presoak, bakoitza bere kabinan; kristalaren beste aldean bisitariok: bat, bi, hiru edo launaka. Denontzat aulkirik ez zegoen arren, guk gureak lortu genituen, baten batek zutik egin behar izan zuen bere bisita. Elkarri entzuteko baldintzak ez ziren onak, aldemenekoen ahotsek traba dezente egiten baitzuten. Hala ere, bisitak gogobete gintuen, gustura aritu ginen, oso.



*Gaizka Areitioaurtena*

Bizkor joan ziren berrogei minutuak. Agurtzane bere ziega minimora itzuli zen, bere bakardadera, bere isolamendura. Aurki egingo ditu 20 urte espetxean. 2017ko martxotik isolatuta dago. Alboloten hiru modulu daude gizon presoekin eta modulu bat emakume presoekin. Gizonezkoak ez bezala, emakumezkoak derrigortu egiten dituzte espazio komunetako WCak garbitzera. Agurtzane eta Ainhoa ez dute diskriminazio hori onartu eta isolatu egin dituzte. Urte betez.

Martxoaren 2an autobusa irtengo da Ermutik Granadara egoera hau salatzeko.

Laguna eta biok kotxea hartu eta Ermura iritsi ginen gauerako. Guztira 1650 km 40 minutuko bisitarako. Senideek ia astero egin behar dute bidai hau. Amak, dagoeneko, ez du hain bidai luze egiteko osasunik.

**arral** arral97.com

Tel.: 943 17 60 75  
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

**DROGETEN** TITURRI

**Publizitatea:**

943 179350  
688 632876  
drogeten@gmail.com

Hamburguesería  
**TITANIC**

*Pintxo dastaketa poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

*de*

IZASKUN TXURRUKA

Goienkate 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com  
peluqueriaizaskun.wordpress.com

*Komunitateak*

**San Pelayo**

*Aholkularitza  
juridikoa*

Tel./Fax: 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**MALLABIA  
1981**

Argazki hau 1980-1981 ingurukoa da,  
Eibarko Udaletxe aurrean aterata  
dago.

Bertan agertzen dira: Andres  
Aranburu, Irene Txurruka, Nekane  
Ormaetxea, Jaione Bizkarra, Marisa  
Ruiz, Ana Telleria, Espe Pradera,  
Itziar Markina, Felipe Zelaieta, Juan  
Manuel Lopez, Mertxe Agirre, Idoia  
Markina eta Mari Glori Suberbiola.

**ERMUA  
1958**

Orain 60 urte, martxoaren 1ean aterata-  
ko argazki honetan, beti ezkerretik  
eskumara, atzeko ilaran daude: Luis  
Mari Izagirre, José Mari Jauregi, José  
Antonio González, Zacarias Yarza eta  
Felix Arrarte. Erdikoan: Elías  
Fernández, José Vicente Alberdi, Javier  
Agirregomezkorta, Felix Moreno, Ander  
Olaizola eta Javier Iriondo. Makurtuta:  
José Bouzo, Alejandro Zubizarreta, Julio  
Junquera, Julián Laka eta Timoteo  
Ormaetxea.

**Enter**

INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es

**Pub SCORPIO**

Zubiaurre, 21  
**ERMUA**

**Proba-Leku**

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A  
**Tel. 943 17 05 42**



## SALGAI

Berogailu "Ecotermi" programagarria saltzen da. 12 elementu dauzka eta oso egoera onean dago. Telefonoa 626144098.



Martxoaren 8an  
Zorionak Tan! 31 urte emakumia! Asko disfrutatu eta besarkada bat. Zure lagunak.



Otsailaren 8an eta martxoaren 24an  
Zorionak Ekia eta lhintza!! 5 eta 3 urte!! Patxo eta besarkada pila familia osoaren partez!!



Otsailaren 12an  
Zorionak Mare zure 8. Urtebetetzean. Zeinen nagusia zaren! Patxo asko eta besarkada erraldoi bat etxekoan partez. Asko maite zaitugu polita!




Martxoaren 1ean  
Gure etxeko mutil handiari... zorionak Ander! 5 urte! Aita, ama eta zure anai Mikelen parte muxu handi bat txapeldun!



Martxoaren 4an  
Zorionak Jokin zure 36. urtebetetzean! Eta datozenak! Ondo ondo pasa. Zure arreba.



Martxoaren 2an  
Zorionak Unai zure 14. urtebetetzean aita, ama eta Malenen partez.



Martxoaren 4an  
Zorionak aitite!! Musu handi bat familia osoaren partez

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua:  
[drogeten@gmail.com](mailto:drogeten@gmail.com)

Gogoratu zoriondu nahi duzuenaren izen-abizena idaztea ere.

Azken eguna: **Martxoaren 14a.**



**FOTOKOPIAK**  
**KOLOREZKO FOTOKOPIAK**  
**HANDIPENAK - TXIKIPENAK**  
**PLANOAK - AZALEZTAPENAK**  
**FAX PUBLIKOA**  
**INPRIMAKETAK KAMISETATAN**

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00



943 170474



ileapaindegia

**Silvia**

peluquería



688819336

**ZINEA**

**3tik 5era:**

Zehaztu gabeko filme-ak

**10etik 12ra:**

Zehaztu gabeko filme-ak

**17tik 19ra:**

Zehaztu gabeko filme-ak

**24tik 26ra:**

Zehaztu gabeko filme-ak

**31tik 2ra:**

Zehaztu gabeko filme-ak

Ermua Antzokian.

Hainbat ordutegi.

**ZINE-KLUBA**

**Hilak 1:**

Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 8:**

Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 15:**

Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 22:**

Zehaztu gabeko filmea

**Hilak 29:**

Zehaztu gabeko filmea

Ermua Antzokian.

20:30ean.

**UMEENTZAKO ZINEA**

**Hilak 4:**

Zehaztu gabeko filme-ak

**Hilak 11:**

Zehaztu gabeko filme-ak

**Hilak 18:**

Zehaztu gabeko filme-ak

**Hilak 25:**

Zehaztu gabeko filme-ak

Ermua Antzokian.

17:00etan.

**MUSIKA**

**Hilak 4:**

Musika eta dantza jaialdia: Andaluziako eguna. 16:00etan.

Ermua Antzokian.

Sarrera dohainik.

**Hilak 9:**

Kontzertua: Clara Peya. 22:15ean.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 10€

**Hilak 17:**

Blues kontzertua:

Anaut. 20:00etan.

Lobiano Kultur

Gunean. Sarrera: 8€

**Hilak 21:**

Kontzertua: Alboka Musika eskolako ikasleak. 19:00etan.

Ermua Antzokian.

**UMEENTZAKO EKITALDIAK**

**Hilak 3:**

Haurrentzako ipuin-kontaketa ingelesez.

17:30ean. Lobiano

Kultur Gunean.

**Hilak 16:**

Haurrentzako ikuskizuna: "Borobilean",

Pirritx, Porrotx eta

Marimototsen eskutik.

17:00 eta 19:00ean.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 6€

**Hilak 24:**

Haurrentzako ipuin-kontaketa. 17:30ean.

Lobiano Kultur

Gunean.

**ANTZERKIA**

**Hilak 23:**

"Interrupted", Teatro

En Vilo taldearen

eskutik. 22:15ean.

Ermua Antzokian.

Sarrera: 10€

**DANTZA**

**Hilak 2:**

"Oskara", Kukai taldearen eskutik.

22:15ean. Ermua

Antzokian. Sarrera:

10€



**BESTELAKOAK**

**Hilak 10:**

Sagardo eguna: hainbat ekitaldi.

11:00etatik. Orbe

kardenalaren plazan.

**Hilaren 12tik 18ra:**

Kazolatxoan astea.

Ermuko tabernetan.

Patxi López

**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**

**PRO  
arraindegia**

**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA

**Infreñu  
Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)

**ALBOKA**

**MUSIKA  
ESKOLA**


- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • [albokamusikaeskola@hotmail.com](mailto:albokamusikaeskola@hotmail.com)



# GREMIOEN

## GIDA



**ITURGINTZA**  
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA  
**LUIS VALLE**  
Bainugelen erakusketa  
943 17 15 56  
Tailerra  
943 17 23 56  
Goienkale z/g

**PERTSIANAK**  
**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:  
Zearreko Buelta 2  
943 17 66 34 - 630 01 13 41  
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1  
48260 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianasorbe@gmail.com

**ETXE-BIRGAITZEAK**

BERRITZE LANAK  
ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOK  
LAGUNDUKO DIZU  
ZUK ERABAKI

www.spara.es  
info@spara.es  
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina - Zeharkalea, 36, 3° - 48200 Ermua - Bizkaia

**ETXETRESNAK**

**Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

**ELEKTRIZITATEA**

**BETA**

ARGIZTAPENA  
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13      943 17 65 25  
689 23 31 71

**ERROTULAZIOA**

**ROTEK**  
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea  
C-1 partzela, 5 behe (Mallabia)  
T / F: 943 17 00 36 • rotek@telefonica.net

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...  
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com





TXASENEKO **HERRIKO SAIZAR**

Maritxonea sagardotegia



# Ernuko Sagardo eguna

## Martxoak 10 Baiety sagardo litro adina eskaldun batū !!



- Egitaraua**
- 12:30-14:30 **TXOTXI!**
- 13:30-14:30 **MINTZOTX**
- 19:00-amaitu arte **TXOTXI!**
- 22:00 **ERRROMERIA**  
Mugi Panderoa



### TABERNAK

- SCORPIO - HANIGAN 'S - LURPE - SAGARRA - KARIKATO JAI - GOIEN - CAPEROS - HERGA - INFREÑU - ERTZ - MOLOKO - TXALAPARTA - TITANIC - DO BERRIA - LONDON IKARABIXA - TORREKUA


### Laguntzaileak:



Ermuko Kaltxango **dek**



Antolatzailea



### OKINDEGIAK

- GOXO GOXO - ARRIAUNDI - BOLINTXO